

ZESTOA / 'Kontaidazu ipuin bat' ekimena abian ostiraletik aurrera

**Mertxe Merinok emango dio hasiera 17:30ean hasiko den ipuin
kontaketa saioare**

Otsailetik aurrera, Zestoako Haur eta Gazteria Sailak eta Udal Liburutegiak proiektu berri bati hasiera emango diote, 'Kontaidazu ipuin bat' izenekoa. Hilero, Zestoako herritar batek, ipuin kontalarien rol-a hartuta, 4-6 urte bitarteko haurrei ipuina kontatuko die udal liburutegian. Lehen saioa otsailaren 8an izango da, ostirala, 17:30ean, eta Mertxe Merino izango da ekimen honi hasiera emango dion ipuin kontalaria.

Guztira 9 kontalari lotu dituzte, denak ere herrian oso ezagunak direnak (pediatra, telebistako aurkezlea, alkatea, artista, irakasle edo eta herritar soilak). Zehatzago esanda, hauek izan dira ekimen honekin bat egin duten herritarra, Mertxe Merino, Leire Etxeberria, Jon Artano, Amaiur Aristi, Iñaki Manzisidor «Nebera», Amagoia Andres, Amancay Gaztañaga, Maider Arregi eta Ruben Larrañaga (uztailean eta abuztuan ez da saiorik egongo) Ekimena Gazteria Sailetik sortu zen eta Udal Liburutegiak baiezkoa eman zion proiektuari. Ondorioz, urtarilaren 25ean Pello Añorga ipuin kontalari ezagunarekin batera saioa izan zuen herritar talde honek, gaztetxoei ipuinak kontatzeko oinarri bat izan zezaten. Urte amaieran balorazioak positiboak badira, ekimen honi jarraipena ematea aztertuko litzateke.